

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

GIZA BALIABIDEEN SAILA

Hautaketa eta Garapen Unitatea

Ebazpena, Udaltzaingoko ofizial, ofizialorde eta lehen mailako agente kategorietako lanpostuetara barne-sustapeneko txandaz sartzeko deialdia eta Oinarriak

Ikusi da Udal honetako Udaltzaingoko eskala teknikoko ofizial, ofizialorde eta lehen agente kategorian hutsik dauden lanpostuen zerrenda.

Kontuan izan da Euskal Herriko Poliziari buruzko 4/1992 Legearen 44. artikulutik 59.era bitartekoetan eta lehen, bigarren, hirugarren, zortzigarren eta bederatzigarren xedapen gehigarrietan Euskal Herriko Polizia osatzen duten kidegoetarako funtzionarioak hautatzeari dagokionez xedatutakoa.

Kontuan izan da Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legeak —gerora 57/2003 Legeak aldatua—, 127.1.h artikuluan, Tokiko Gobernu Batzarrari aitortzen diola lan-eskaintza publikoa onesteko eskumena, baita langileak hautatu eta lanpostuak betetzeko deialdien oinarriak onestekoa eta langileen inguruko bestelako erabakiak —beste organoren bati aitortuak ez zaizkionak— hartzekoa ere.

Hori guztia kontuan izanik, Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen 7/85 Legeak —Tokiko Gobernu Eraberritzeko abenduaren 16ko 57/2003 Legeak aldatua— 127. artikuluan aitortzen dizkidan eskumenez baliatuz, eta Gasteizko Udaleko Gobernu Batzarraren 2019ko ekainaren 21eko erabakiaren bitartez nire esku utzitako aginpidea betez, honako hau ebatzi dut:

Eskumen horietaz baliatuz, hau ebatzi dut:

1. Barne-sustapenaren bitartez lanpostu hauek betetzeko deialdia onestea: 5 ofizial (2 derrigortasun-data igaroarekin); 5 ofizialorde (1 derrigortasun-data igaroarekin), eta 5 lehen agente (0 derrigortasun-data igaroarekin); Tokiko Gobernu Batzarrak 2020ko uztailaren 1ean onetsitako Udaltzaingoko lan-eskaintza publikoari dagozkio lanpostu horiek.

2. Deialdia arautuko duten oinarriak onestea, zeintzuk ebazpen honen eranskinean jaso baitira.

3. Deialdi honen oinarriak eta dagozkion eranskinak ALHAOn, udalaren iragarki-taulan eta udalaren www.vitoria-gasteiz.org/hautatzeprozesa web-orrian argitaratzea —azken horretan, eranskinekin batera—. Eskaera-orriak aurkezteko epea deialdiaren iragarkia ALHAOn argitaratzen den egunetik aurrera irekiko da.

4. Interesdun guztiei ematea ebazpenaren berri, zeinaren kontra, administrazio-bidea agortzen baitu, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango baita zuzenean Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazten den egunaren biharamunetik, edo, aukeran, berraztertze errekurtsoa, erabakia hartu duen organo berari zuzendua, hilabeteko epean, jakinarazte-egunaren biharamunetik; horren berariazko

ebazpenaren kontra, berriz, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, bi hilabeteko epean, errekurtsoa ezesten duen ebazpena jakinarazten den egunaren biharamunetik.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko urriaren 21ean

Giza Baliabideen zinegotzi ordezkaria
IÑAKI GURTUBAI ARTETXE

Gasteizko Udaleko Udaltzaingoaren kidegoko ofizial, ofizialorde eta lehen agente kategorietara igotzeko oinarriak.

Lehena. Deialdiaren xedea.

1.1. Gasteizko Udaleko Udaltzaingoan hutsik dauden lanpostu hauek oposizio-lehiaketa sistemaren eta barne sustapenaren bidez betetzea: 5 ofizial (2 derrigortasun-data igaroarekin), 5 ofizialorde (2 derrigortasun-data igaroarekin) eta lehen agente (0 derrigortasun-data igaroarekin).

1.2. Hautatze-prozesua bukatu bitartean hutsik geratzen diren lanpostuak gehitu ahal izango zaizkio deialdiko lanpostu-kopuru horri, Gobernu Batzarrak aldez aurretik onetsita. Euskal Herriko Poliziaren hautespen- eta prestakuntza-araudia onetsi zeneko uztailaren 19ko 315/1994 dekretuaren 40.2. artikuluan xedatutakoaren ildotik, hala egiten bada ez da beharrezko izango eskabideak aurkezteko epe berri bat zabaltzea.

1.3. Eskaintzen diren lanpostuak betetzeak beste lanpostu batzuk hutsik geratzea ekarriko duela eta horiek hasierako eskaintza handituko dutela kontuan izanik, hautaketa-prozesua zein 1.2 oinarrian aipatutako handitzea elkarren segidan egingo dira, sortuz doazen leku hutsak betetzearen.

1.4. Oinarri orokor hauen bitartez arautuko da hautatze-prozesua, lege-arau hauen ildotik: 1978ko abenduaren 27ko Espainiako Konstituzioaren 14., 23.2 eta 103.3 artikulua; 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena;

5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena; 1/2020 Legegintzako Dekretua, uztailaren 22koa, Euskal Herriko Poliziari buruzko Legearen testu bategina onartzen duena; 315/1994 Dekretua, uztailaren 19koa, Euskal Herriko Poliziaren hautaketa- eta prestakuntza-araudia onartzen duena; 2/1986 Lege Organikoa, martxoaren 13koa, Segurtasun Indar eta Kidegoei buruzkoa; 781/1986 Legegintzako Errege Dekretua, apirilaren 18koa, toki-araubidearen arloan indarrean dauden lege-xedapenen testu bategina onartzen duena; ekainaren 7ko 896/1991 Errege Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarria, udaltzaingoei dagokienez; 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena, eta Eusko Jaurilaritzaren 4/2005 Legea, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerakoa, besteak beste.

1.5. Deialdiari buruzko informazioa eta jarraipena:

- Web-orrian: www.vitoria-gasteiz.org/hautatzeprosesuak.
- Iragarki-taula elektronikoa.
- Herritarrei laguntzeko bulegoak (San Antonio kaleko 10.ean eta gizarte-etxeetan), Ariznabarreko kiroldegia eta udalaren bulego teknikoak (Teodoro Dublang Margolariaren kalea, 25).
- Argibideetarako telefonoa: 010 (Gasteiztik deituz gero) edo 945 161616 (Gasteiz kanpotik deituz gero).
- Deialdirako berriarazko herritarren postontzia.

Bigarrena. Izangaiek bete beharrekoak eta deialdiaren baldintzak.

2.1. Gasteizko Udaleko karrerako funtzionarioa izatea.

2.2. Zerbitzu aktiboan edo zerbitzu berezietan egotea, seme-alabak edo senideak zaintzeko lan-utzialdian egotea edo genero-indarkeriarengatiko lan-utzialdian egotea.

2.3. Kasu bakoitzean eskatzen diren zerbitzu-urteak eginak izatea sartu nahi den kategoriaren azpiko hurrengo kategorian edo eskalan, eta hutsegite larria nahiz oso larria dela kausa zigorrik jaso ez izana, edo, jaso bada, ezarritako zigorra baliogabetzea lortu izana.

2.4. Barne-sustapenaren bidez sartu nahi den kategoriaren azpiko hurrengo kategorian edo eskalan zerbitzu-urte hauek eduki beharko dira beteta:

- a) Lehen agente kategorian sartzeko, benetako zerbitzuan hiru urte eginak izatea oinarritzko eskalako agente gisa.
- b) Ofizialorde edo ofizial kategorian sartzeko, benetako zerbitzuan lau urte eginak izatea oinarritzko eskalako kategorietan.

2.5. Jatorriko eskalan benetan egindako zerbitzuei dagokien denbora zenbatzeko ondorioetarako, Gasteizko Udaleko karrerako funtzionario gisa barne-sustapenean sartzea ahalbidetzen duten administrazio-egoeretan emandako denborari aurreko praktikaldia ere gehituko zaio, baldin eta hautaketa-prozesua gainditu bazen.

2.6. Euskal Herriko Poliziaren hautespen- eta prestakuntza-araudia onartu zeneko Dekretua bigarrenez aldatzeko otsailaren 17ko 36/2004 Dekretuaren eranskinetan aurreikusitako baztertze medikurako gaitzik ez izatea. (2004ko martxoaren 2ko EHAA, 42. zenbakia).

2.7. Derrigortasun-data igaroa duten lanpostuetarako, 2. hizkuntza-eskakizuna (2. HE) edukitzea edo deialdian eskakizun hori egiaztatzeko egingo diren probak gainditzea. Hautatze-prozesu honetan hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko proba egiten den egunerako bete behar da betekizun hori.

2.8. IT txartelen udal multzoa egiaztatzea: IT05 ofizial eta ofizialordeentzat, eta IT02 lehen agenteentzat. Horiek eskuratzeko gehieneko epea 6 hilabetekoa izango da, deialdia ALHAOn argitaratzen denetik.

2.9. Lehiaketa, oposizio eta oposizio-lehiaketetan parte hartu ahal izateko Gasteizko Udalak ezarria duen tasa ordaindu izana (ikus 3.5, 3.6 eta 12.2 oinarriak).

2.10. Eskabidea aurkezten den unean ez da betekizunak eta merezimenduak egiaztatzeko agiririk eskatuko. Agiri honen 12. oinarrian ezarritakoari jarraituz aurkeztuko da dokumentazioa, eta nahikoa izango da eskatzen diren baldintza guzti-guztiak betetzen dituztela adieraztea eskabidean (eskabideak aurkezteko epea bukatzearekin lotuta betiere).

2.11. Eskabidea aurkezteak deialdian eskatutako baldintza eta betekizun oro betetzen eta onartzen direla esan nahi du, bai hautaketa-prozesuan, bai prestakuntza eta praktikarako aldian ere, halakorik bada. Deialdia egin duen organoak behar diren egiaztagiria begiraterik izango du edozein unetan, eta behar den dokumentazioa eskatzerik; horiek ez izateak edo faltsutu izanak deialditik kanpo uztea ekarri ahal izango du berekin — interesdunari entzun ondoren—.

Hirugarrena. Eskabideak aurkeztea.

3.1. Hautatze-probetan parte hartu nahi dutenek udalaren webgunean dagoen eskabide elektronikoaren bitartez izapidetu beharko dute, edo herritarrei laguntzeko bulegoetan.

3.2. Leku hauetan ere aurkeztu ahal izango dira eskabideak: zuzentzen zaion administrazio organoaren erregistroan, Estatuko administrazio orokorraren edo autonomia erkidegoen menpeko edozein administrazio organoren erregistroan; probintzietako diputazioen edo uharteetako kabildo edo kontseiluen edozein administrazioarenean; Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 121. artikuluan adierazten diren udalerrietako udalenetan; toki-administrazioa osatzen duten gainerako erakundeenetan, baldin eta behar den hitzarmena sinatua badute; posta bulegoetan, arauz ezartzen den moduan; Espainiak atzerrian dituen ordezkarietza diplomatiko edo kontsul-bulegoetan, edo indarrean dauden xedapenetan ezartzen den beste edozein lekutan.

3.3. Aurreko ataletan adierazitako moduan aurkeztu beharko dira eskabideak, 20 egun balioduneko epean, deialdiaren iragarkia ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik.

3.4. Probak zein hizkuntzatan, euskaraz ala gaztelaniaz, egin nahi dituzten adierazi beharko dute izangaiek eskabidean. Atal horretan ezer adierazten ez badute, probak gaztelaniaz egin nahi dituztela esan nahiko du. Hala ere, gaitasun psikologikoak eta pertsonalak ebaluatzeko probak diseinatuta dauden hizkuntzan egingo dira —gaztelaniaz edo euskaraz eta gaztelaniaz—.

3.5. Azterketa egiteko ordaindu beharreko tasak. Eskabideak aurkezteko epea irekitzean indarrean dagoen ordenantzak ezarriko du zein kuota ordaindu behar duen izangai bakoitzak sartu nahi den lanposturako.

3.6. Eskabidea aurkezten denean jasoko den ordaintzeko agindua baliatuz ordaindu beharko da tasa. Ordenantza fiskalean jasotzen den salbuespen edo murrizketarik baliatzen, behar bezala egiaztatuta beharko du izangaiek horretarako eskubidea duela (ikus 12.2 oinarria).

3.7. Agiri bidez edo horretarako egiten den probaren bidez lanposturako eskatzen den hizkuntza maila dutela egiaztatzen dutenek derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna duten lanpostuetara zein ez dutenetara sartu ahalko dira.

3.8. Borondatezko euskara proba. Dagokion egiaztatzea ez dutelarik hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko probak egin nahi dituzten izangaiek —betekizuna nahiz merezimendua izan— eskabidean adierazi beharko dute; izan ere, ez zaie horietan parte hartzeko aukerarik emango eskabideak aurkezteko epean hala adierazten ez dutenei.

3.9. Egokitzapenak amatasuna dela eta. Haurdunaldian edo edoskitze aldian daudenean ere egokitzapenak eskatu ahalko dituzte; horretarako, proba egin baino 10 egun baliodun lehenagotik gutxienez jakinarazi beharko diote epaimahai kalifikatzaileari.

Laugarrena.- Eskatzaileen zerrenda

4.1. Eskabideak aurkezteko epea bukatu ondoren, hautatze prozesuan parte hartzeko eskaria egin dutenen behin-behineko zerrenda onetsiko du Giza Baliabideen zinegotziak, eta webgunean argitaratzeko aginduko. Orobat adieraziko da 10 egun balioduneko epea izango dela erreklamazioak aurkeztu nahiz izandako akatsak zuzentzeko.

Bosgarrena.- Epaimahaia

5.1. Honako hauek osatuko dute deialdiko epaimahaia: lehendakaria –Giza Baliabideen Saila–, Euskal Polizia eta Larrialdi Akademiak proposatutako teknikari bat, bi teknikari, eta udaleko beste teknikari bat idazkari lanetan; horiek guztiek ordezkokoak ere izango dituzte.

5.2. Objektibotasun-, inpartzialtasun- eta profesionaltasun-printzipioak bete beharko dituzte epaimahaikoek.

5.3. Gizonezko eta emakumezkoen arteko oreka izan beharko du epaimahaiak, hau da, gutxienez ehuneko 40 izan beharko dute batzuek nahiz besteek, hori ezinezkoa dela justifikatu ezean.

5.4. Aholkulari espezializatuak hartzerik izango du epaimahaiak hala egitea beharrezkotzat jotzen duen saioetarako. Beren espezialitate teknikoetan baino ez dira arituko aholkulari horiek. Gizonak nagusi diren lanbideei dagozkien hautaketa-prozesuetan, epaimahai kalifikatzaileak berdintasunari buruzko aholkularitza izango du nahitaez.

5.5. Beharrezko diren neurriak hartuko ditu epaimahaiak bere aurrean irakurtzekoak ez diren oposizio-faseko idatzizko ariketak zein izangairenak diren jakin gabe zuzentzen direla bermatze aldera.

5.6. Epaimahaiak erabakiko ditu arau hauek aplikatzean sortzen diren zalantzak oro, baita arautu gabeko kasuetan nola jokatu ere.

5.7. Epaimahaiko kide guztiak izango dute hitza eta botoa. Berdinketarik izanez gero, epaimahaiburuak kalitateko botoa izango du.

5.8. Eskatzaileen behin-behineko zerrendarekin batera emango da argitara epaimahaikide eta ordezkoen izenen zerrenda.

5.9. Epaimahaia ezingo da eratu, ezta jardun ere, epaimahaikideen erdiak baino gehiago, titular nahiz ordezko, bertan ez badira; gainera, ezinbestekoa izango da mahaiburua eta idazkaria bertan izatea.

5.10. Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren ordezkari bat epaimahaikide izango da deialdian eskatzen diren hizkuntza eskakizunak egiaztatzeko probetan.

5.11. Epaimahaiko idazkaria –baita haren ordezkoa ere– ordeztu beharra badago –kargua hutsik geratu delako, bertan ez direlako, gaixorik daudelako edo legezko beste edozein arrazoirengatik–, epaimahaia gehiengoz erabakitzen duen kideak ordeztuko ditu.

5.12. Epaimahaiko lehendakaria edo haren ordezkoa ordeztu beharra badago –kargua hutsik geratu delako, bertan ez direlako, gaixorik daudelako edo legezko beste edozein arrazoirengatik–, maila goreneko epaimahaikidea izango da ordezkoa. Maila berekoen artean, adinduen.

5.13. Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikuluan aurreikusitako kasuetan, epaimahaikideek ezingo dute parte hartu, eta deialdia egin duen agintariari eman beharko diote horren berri. Gainera, izangaiek errefusatu egin ahal izango dituzte.

5.14. Izangairen batek deialdian ezarritako betekizunetakoren bat betetzen ez duela jakiten badu epaimahaia hautatze prozedurako edozein unetan, hura baztertzeko proposatu beharko dio hartarako eskumena duen organoari, izangaia egindako okerren nahiz faltsutasunen berri emanik, betiere alde zurretik interesatuari entzun ondoren.

5.15. Gasteizko Udalaren iragarki-taula elektronikoa izango da erabakiak, deiak, ariketen egun-orduak nahiz bestelako argitara emateko leku ofiziala, eta banan-banako jakinarazpenen ondorio berberak izango dituzte argitalpen horiek. Hala ere, 1.4 oinarrian adierazi diren bideak eta lekuak ere erabiliko ditu Giza Baliabideen Sailak informazioari zabalkunde emateko.

5.16. Epaimahaia jarduera nahiz argitalpenak direla eta egiten diren alegazioak idatziz aurkeztu beharko dira, herritarrei laguntzeko bulegoetan edo epaimahaia egokitzen duen prozedura telematikoaren bidez.

5.17. Hautatze-prozesuaren garapena antolatzeko orduan, austeritate eta bizkortasun printzipioak aplikatuko ditu epaimahaia bere jardunean, Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatutuan xedatutakoaren printzipioak betetzeaz gain.

5.18. Lehenengo saioan, barne funtzionamendurako araudia onetsiko du epaimahaia.

Seigarrena. Ariketen nondik norakoak

6.1. Dagokien eranskinetan ageri da ikasgai zerrenda.

6.2. Izangai guztiak batera egiterik ez dagoen ariketetan, honela jokatuko da: Administrazio Publikorako Estatu Idazkaritzaren ebazpenean zehaztutakoari jarraituz lehen deitura ariketa egiten den egunean indarrean den letrakoa duten izangaia hasiko dira lehenik.

6.3. Ezinbesteko kasuetan izan ezik, epaimahaia nahitaezko probak egiteko zehazten dituen egun, ordu eta lekuetan agertzen ez direnak hautatze-prozeduratik baztertuta geratuko dira besterik gabe.

Berdin jokatu da nahitaezko probetara haiek egiten hasi ondoren agertzen direnekin. Nahitaezko probek ariketa bat baino gehiago badute, horietako edozeinetara ez agertzea edo berandu agertzea joko da ez agertzetzat. 6.10 oinarrian aipatzen den egoeran daudenak salbuetsiko dira.

6.4. Nortasun agiria edo pasaportearen eraman beharko dute izangaiek probetara, eta edozein unetan eskatu ahal izango die epaimahaiak erakusteko. Agiria aurkeztu ezean, besterik gabe baztertuko da izangaia hautatze-prozesutik. Trafiko Zuzendaritza Nagusiak jaulkitako gidabaimenak ere balioko du.

6.5. Deialdiaren azken iragarpen ofiziala egiten denetik bi hilabete igaro aurretik ezingo dira hasi ariketak. Lehen ariketa egiteko lekuaren, egunaren eta orduaren berri udalaren iragarki-taulan emango da, gutxienez zazpi egun natural lehenago.

6.6. Batera egitekoak ez diren hurrengo ariketa-saiotara dei egiteko iragarkiak udalaren iragarki taula elektronikokoan eta udalaren web-orrian argitaratuko dira, gutxienez ere hurrengo saioa baino 72 ordu lehenago.

6.7. Proba edo ariketa desberdinak batera bildu ahal izango ditu epaimahaiak, egun berean egin daitezten.

6.8. Hautatze prozesurako deitutakoek parte hartu ahal izango dute probetan. Orobat izango dute parte hartzeko aukera deituta ez daudenek, baldin eta erreklamazioa aurkeztu dutela eta proba-egunearan hura oraindik ebatzi gabe dagoela egiaztatzen badute.

6.9. Hautatze prozesuaren edozein unetan ere, jatorrizko agiriak eskatu ahal izango ditu epaimahaiak.

6.10. Aparteko deialdiak. Kasu hauek eragindako pertsonen aparteko deialdi batera deitu beharko die epaimahaiak: deitutako idatzizko proba egin aurretik ama izatea —erditze-data proba egiteko data baino 15 egun natural aurreragokoa izan beharko du gehienez—, edo aurreikusitako datan proba egitea eragotzi duen ezinbesteko arrazoiren bat, epaimahaiak aintzat hartu badu. Deialdi nagusia egin ondoren 15 egun natural baino laburragoa eta 40 egun baino luzeagoa ez den epe baten barruan egin beharko da. Epaimahaiak probaren ezaugarriak egokituko ditu, eta behar diren egokitzapen pertsonalak hartuko dira kontuan.

6.11. Amatasun-egoera eta proba fisikoak. Haurdunaldia, erditzea nahiz erditu ondoko aldia proba fisikoak egiteko garaian egokitzen zaien emakumeek horiek atzeratzerik izango dute, gehienez ere 12 hilabetez, erditzen direnetik. Nolanahi ere, gainerako probak egin beharko dituzte, deitzen zaienean, betiere behar diren egokitzapenak eginda. Proba fisikoak egin ondoren Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademian prestakuntza eta praktikarako aldiaren hasteko kupoan sartzen badira, horiek egingo dituzte; plaza erreserba bat aurreikusiko da, gainerako izangaien emaitzekin alderatuta dituzten emaitzak kontuan hartuz, eta horiek praktikaldiko funtzionarioen izendapena izaten jarraituko dute emakume horiek praktikaldia amaitu eta gaituzten arte.

Zazpigarrena. Hautatze sistema

Oposizio-lehiaketaren bitartez egingo da hautaketa, eta, horren osagarri, prestakuntza-ikastaro bat eta/edo praktikaldia egin beharko dira, hautatze-prozesuaren barruan sartuko baitira horiek ere.

Hala ere, uztailaren 22ko 1/2020 Legegintzako Dekretuak —Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Legearen testu bategina onesten du— 79. artikuluan ezarritakoaren ildotik, ofizial kategorian sartzeko barne-sustapenean ez zaie praktikaldia egitea eskatuko ikuskaritza eskala berean ofizialorde kategorian daudenei, ezta jatorriko kategoria horretan (ofizialorde) barne-sustapenaren bidez sartzeko eskatutako ezagutza berak egiaztatzeko probak egitea ere, dagokion oinarrian zehaztutakoaren arabera.

Zereginak erreferentziako kategoriari dagozkionak izango dira, hau da, oro har, polizia lokalaren arloan indarrean dagoen legedian zehazten diren zereginak, eta, bereziki, Gasteizko Udalak kategorია horretarako zehaztuak dituenak.

7.1. Lehiaketa-aldia. Ekainaren 7ko 896/1991 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera, oposizio-faseak azterketa fasearen behin betiko emaitzak argitaratu aurretik bukatu beharko du. Gehienez 30 puntu lortu ahal izango dira atal honetan, banaketa honen arabera:

7.1.1. Lan-esperientzia. Gehienez, 14 puntu.

Izangaiek sartu nahi duten kategoriatik beherako lanpostuetan izandako esperientzia profesionala baino ez da balioetsiko, betekizun gisa eskatutako denbora kenduta.

Zerbitzu-eginkizunetan egindako benetako zerbitzualdiak izangaia titular deneko kategorian baloratuko dira.

- Ofiziala:
 - Ofizialordea: 4 puntu/urte.
 - Lehen agentea: puntu 1/urte.
- Ofizialordea:
 - Lehen agentea: 2 puntu/urte.
 - Agentea: 0,50 puntu/urte.
- Lehen agentea:
 - Agentea: 0,5 puntu/urte.

7.1.2. prestakuntza. Gehienez, 7 puntu.

- Goi mailako hezkuntza: Gehienez, 5 puntu.
- Goi mailako teknikaria (MECESen 1. maila): puntu 1.
- Unibertsitate diploma (MECESen 2. maila): 1,5 puntu.
- 240 ECTS duen gradua (MECESen 2. maila): 2 puntu.
- Masterra (MECESen 3. maila), gutxienez 300 ECTS duen lizentzia edo gradua (gutxienez master mailako 60 ECTS kreditu barne hartzen dituen, Unibertsitate Kontseiluaren ebazpenez): 3 puntu.
- Doktoretza (MECESen 4. maila): 4 puntu.

Maila goreneko titulua baino ez da balioetsiko (alegia, pertsona bat lizentziaduna bada, ez da kontuan hartuko alor bereko unibertsitate diploma izatea, edo gradua edo lizentzia lortzeko betekizuna bada).

- Lanpostuarekin edo polizia zereginekin zuzeneko lotura duten beste unibertsitate ikastaro batzuk (masterra, aditua...): 60 ECTS edo zati proportzional bakoitzeko: 0,5 puntu.
- Espezializazio ikastaroak: gehienez, 2 puntu.

Prestakuntza-ikastaro eta -jarduerak, baldin eta 2005eko urtarrilaren 1a baino lehenago hasiak ez badira, eta, epaimahaiaren iritziz, lanpostuarekin lotura zuzena badute. Kanpo geratuko dira arlo hauetakoak: hizkuntzak, ofimatika, tiroa, prestakuntza fisikoa eta defentsa pertsonala edo poliziala, baita etengabeko prestakuntzaren programazioaren barrukoak (nahitaezko birziklatze-ikastaroak) eta barne-sustapenerako (igotzeko) nahitaezko prestakuntza ere. Ikastaroen ordu-kopuruaren araberako puntuazioa:

1etik 10era: 0,10 puntu ikastaro bakoitzeko.
11tik 20ra: 0,20 puntu ikastaro bakoitzeko.
21etik 50era: 0,40 puntu ikastaro bakoitzeko.

51tik 100era: 0,55 puntu ikastaro bakoitzeko.
101etik 200era: 0,65 puntu ikastaro bakoitzeko.
200etik gora: 0,75 puntu ikastaro bakoitzeko.

7.1.3.- Euskara. Gehienez, 5 puntu.

Kontuan izanik 2. HE dagoela ezarria, hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko probak egingo ditu HAEEK, merezimendu gisa baloratze aldera.

- 2. HE edo goragokoa egiaztatzen duten izangaiek goreneko puntuazioa lortuko dute atal honetan, besterik gabe; hau da, 5,00 puntu, probak egiteko beharrik gabe.
- 1. HE egiaztatzen dutenek, berriz, horren erdia eskuratuko dute, hau da, 2,50 puntu.

7.1.4. Hizkuntzak. Gehienez, 1 puntu.

- Puntu 1 B2 maila egiaztatzen bada.
- 0,5 puntu B1 maila egiaztatzen den hizkuntza bakoitzeko.

Hizkuntza berekoak ez dira metatuko.

7.1.5. Proba fisikoak. Gehienez, 3 puntu.

Borondatezkoa da, eta ez da baztertzaila izango.

Probetan parte hartzeko ezinbestekoa izango da proba guztiak egin ahal izateko sasoian egotea, hau da, parte hartzearekin okerragora egin lezakeen gaixotasun, akats fisiko edo zauririk ez edukitzea.

Betebehar horiek betetzen ez dituen nornahik uko egin beharko dio probak egiteari, eta, eginez gero, berea eta ez beste inorena izango da erantzukizuna. Era berean, parte hartzeak esan nahiko du ezagutzen direla, baloratu direla eta onartzen direla probak egiteak berekin dakartzan arriskuak, zauriak, erorketak eta istripuak barne, eta erantzukizun orotatik salbuesten direla antolatzaileak.

Course-navette proba izango da, eta puntuazio hau lortu ahalko da:

- Gizonezkoak: 0,25 puntu tarte erdi bakoitzeko, 5. pale eta erdian kontatzen hasita (0,25).
- Emakumezkoak: 0,33 puntu tarte erdi bakoitzeko, 5. pale eta erdian kontatzen hasita (0,33).

7.1.6. Poliziaren dominak eta sariak. Gehienez puntu 1.

Uztailaren 22ko 1/2020 Legegintzako Dekretuak —Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Legearen testu bategina onesten du— bigarren xedapen iragankorrean (Kondekorazio-araubidea eta zerbitzu-egintza) eta urtarrilaren 26ko 27/2010 Dekretuak —Euskal Autonomia Erkidegoko Udaltzaingoko kidegoei aplikatu dakiekeen kondekorazio- eta sari-erregimenari buruzkoa— ezarritakoaren ildotik, Euskal Autonomia Erkidegoko polizia kidegoetako funtzionarioen polizi merezimenduen aitortpen, zorion-emate, kondekorazio, sari eta domina hauek merezimendutzat joko dira barne-sustapenerako deialdietan; gehienez puntu 1:

- Polizia-lana saritzeko domina: puntu 1.
- Polizia-zerbitzua saritzeko diploma, bereizgarri gorridunekoa (Euskal Autonomia Erkidegoko udaltzainen edozein kidegoren zerbitzura hogeita hamar urte beteta): puntu 1.

Bereizgarri gorriduneko diploma kontuan hartzen bada ez da bereizgarri zuriduneko diploma balioetsiko.

- Polizia-zerbitzua saritzeko diploma, bereizgarri zuridunekoa (Euskal Autonomia Erkidegoko udaltzainen edozein kidegoren zerbitzura hogei urte beteta): 0,5 puntu.
- Txalagarritzat hartutako ekintzengatik esker ona adierazteko zorion-emateak, baldin eta dominak emateko betekizunak betetzen ez badituzte: 0,1 puntu banakako zorion-emate bakoitzeko, 27/2010 Dekretua indarrean jarri ondorengo bada.

7.2. Oposizio-fasea.

Gehienez 70 puntu lortu ahal izango dira atal honetan, banaketa honen arabera:

7.2.1. Lehen ariketa.

“GAI/ EZ GAI” izango da ariketa honetako kalifikazioa. Nahitaezkoa eta baztertzaila izango da, izangai guztientzat, salbu eta, karrerako ofizialorde izanik barne-sustapenaren bidez ikuskaritza eskala bereko ofizial kategorian sartu nahi dutenentzat, proba kategoria horretan dagoeneko eskatutako ezagutza berak egiaztatzeke baita, eta lanbidearen zereginak betez egiaztatuak; horiei GAI kalifikazioa emango zaie.

Epaimahaiak proposatzen duen kasu teoriko-praktiko bati edo zenbaiti erantzun beharko zaie idatziz; lortu nahi den lanpostuko zereginetan oinarrituta egongo dira, eta I. eranskinetako ikasgai-zerrendako hainbat gai erlaziona ditzakete. Epaimahaiak erabakiko du ariketaren iraupena (gehienez hiru ordukoa izango da).

Epaimahaiak ariketa hasi aurretik zehazten duen gutxieneko puntuazioa lortu beharko dute izangaiek ariketa gainditzeko.

7.2.2. Bigarren ariketa.

Izangaia lanpostuaren gaitasun-profilera egokitzen den aztertzeraz zuzendua. Nahitaezkoa eta baztertzaila izango da, izangai guztientzat. Gehienez ere 70 puntu atera ahal izango dira ariketa horretan, eta gutxienez 35 puntu beharko dira gainditzeko.

Bi proba izango dira:

- Lehen proba. Proba psikoteknikoak. Gehienez 40 puntu atera ahal izango dira, eta ez da baztertzaila izango.
- Bigarren proba. Elkarrizketa edo ebaluazio-dinamika bat. Baztertzaila izango da. Gehienez 30 puntu lortu ahal izango dira ariketa horretan, eta gutxienez 15 puntu lortu beharko dira gainditzeko.

Zortzigarrena. Emaitzak argitaratzea.

8.1. Ariketa bakoitzera aurkeztu diren emaitzak udalaren webgunean jakinaraziko dira. Hala ere, 1.4 oinarrian adierazi diren bideak eta lekuak ere erabiliko ditu Giza Baliabideen Sailak informazioari zabalkundea emateko.

8.2. Ariketa bakoitzaren emaitzak argitaratu ondoren, gutxienez hiru eguneko epea izango da erreklamazioak aurkezteko. Epaimahaiburuari zuzendu beharko zaizkio horiek, idatziz, horretarako ezartzen den moduan. Epe horren barruan ariketaren kopia eskatzerik izango da, eta hura jasotzen denetik 3 eguneko epea emango da alegazioak aurkezteko; kopia jasotzeko, dagokion tasa ordaindu beharko da.

8.3. Aukera anitzeko galderen bidezko ariketak (test erakoak) egin ondoren, epaimahaiak erantzun zuzenen orria eta kalifikazio irizpideak argitaratuko ditu, proba psikometrikoen kasuan izan ezik, horiek kopiatzea deontologia eta jabetza intelektualaren arauen menekoa baita, eta aurrez zehaztutako estandar zientifikoen arabera baremoak baliatuz zuzentzen baitira.

8.4. Ariketa guztiak eta lehiaketa-fasea burutu ondoren, eta epaimahaiari aurkeztutako erreklamazioak ebatzi direlarik, proba guztiak gainditu dituzten izangaiei zerrenda emango du argitara epaimahaiak, gutxira lortutako puntuazioen arabera sailkatuta, ariketa bakoitzean lortutako puntuak ageri direla.

8.5. Izangaiek horretarako epearen barruan aurkezten dituzten berrikusteko eskabide eta erreklamazioak oro aztertu eta erantzuntzat joko dira epaimahaiak ariketetako bakoitzaren behin betiko emaitzak onesteko erabakia hartzen duelarik.

8.6. Behin betiko emaitzei buruzko erabakia udalaren iragarki-taulan argitaratzen diren egunaren biharamunetik kontatzen hasita eta hilabeteko epean, haien kontra gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango dute izangaiek, Gasteizko Udaleko Giza Baliabideen zinegotziari zuzenduta.

Bederatzigarrena. Prestakuntza eta praktikarako aldia.

9.1. Prestakuntza-ikastaroa eta praktikaldia egin beharko dira hautatze prozesuaren baitan. Betetzeko dauden lanpostuak adina izangai igaroko dira horietara. Nahitaezkoak izango dira, eta baztertzeari indarra izango dute.

Zazpigarren puntuan ezarritakoaren ildotik —Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Legearen testu bategina onesten duen uztailaren 22ko 1/2020 Legegintzako Dekretuaren 79. artikulua—, ofizial kategorian sartzeko barne-sustapenean ez zaie praktikaldia egitea eskatuko ikuskaritza eskala berean karrerako ofizialorde kategorian daudelarik ofizial kategorian lanpostua lortzen dutenei; prestakuntza-prozesua gainditu ondoren, izangai horiek izendatzeko proposamenaren akta aurkeztuko dio epaimahaiak Giza Baliabideen zinegotziari. Gainerako izangaiei kasuan, zehazten den praktikaldia gainditu ondoren proposatuko da izendapena.

9.2. Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademia arduratuko da prestakuntza-ikastaroak eta praktikaldiak antolatu eta garatzeaz, baita horien azken ebaluazioaz ere, nahiz eta toki-erakundeko prestakuntza-zentroen esku utzi ahal izango duen horiek antolatu eta burutzea, hark hala eskatuz gero. Prestakuntza-ikastaroak ikasturte bat hartuko du, kategoria bakoitzeko, eta izaera selektiboa izango du —Ertzaintzaren Akademiako zuzendaritza-kontseiluak onetsitako ikasketa-planaren arabera egingo da, hark zehazten duen iraupenarekin.

9.3. Prestakuntza-ikastaroa gainditu ondoren, hautagaiek praktikaldia egingo dute. Hautagaiek beren jarduera-arloen arabera prestakuntza integrala lor dezaten eta, bereziki, Gasteizko Udaltzaingoko zerbitzuen egitura eta jarduera ezagut ditzaten egokien suertatzen diren zentro edo bulegoetan egiten dituzten ordu efektiboak barne hartuko ditu ebaluazio-aldiak —aldi baterako ezintasunen, baimenen eta besteren ondorio diren absentiak zenbatu gabe—.

9.4. Kategoriari dagozkion zereginak betetzeko hautagaiek erakusten duten gaitasuna hartuko da kontuan praktikaldia ebaluatzeko, hau da, zenbateraino egokitu diren lanbide horretan taxuz jarduteko, eta, bereziki, zerbitzurako jarrera, herritar eta lankideenganako harremanak, diziplina, lankidetzeta eta laguntza, errendimendua eta ardura, egora menderatzeko gaitasuna, emozioen oreka eta egokitze gaitasuna —argi antzeman daitezkeen eta zehatz azalduta dauden portaera-erreferenteekin alderatuz balioetsiko dira—.

9.5. Ebaluatze prozesua jarraia izango da praktikaldi osoan zehar, eta praktikaldiko funtzionarioen segimendua eta haien jardunari buruzko txostena egiteko tutore bana izendatuko zaie izangaiei. Tutore horiek balorazioaren arduradunaren laguntza jaso ahal izango dute. Tutorea nahiz arduraduna lanpostuaren kategoria berekoak edo goragoak izango dira.

9.6. Argi eta garbi jakinaraziko zaie izangaiei zein izango diren ebaluatzaileak, eta aldiaren behin tutoreak txosten bat egingo du, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako ebazpenaren bitartez onetsiko den balorazio-tresna baliatuz, zeina praktikaldia hasi aurretik ezagutaraziko baitzaie izangaiei. Praktikaldia bukatzean tutoreak hautagaiaren jardunari buruzko txostena eta balioespen orokorra egingo ditu.

9.7. Praktikaldiaren ardura duen organoak ematen duen kalifikazioa ‘gainditua’ edo ‘gainditu gabea’ izango da, eta egindako txostenak aintzat harturik erabakiko da, 9.4. atalean adierazitako alderdiak balioetsiko baitira horietan.

Praktika aldiaren ardura duen organoak ematen dituen kalifikazioak lotesleak izango dira epaimahaiarentzat, eta, horrenbestez, baita karrerako funtzionarioak izendatzea dagokion udal organoarentzat ere.

Hamargarrena. Datu pertsonalak

10.1. Hautatze prozesuan parte hartzeak eskabidean adierazitako datu pertsonalen tratamendua onartzen dela esan nahiko du, hau da, prozesuaren baitako emaitza partzialak nahiz behin betikoak buletinetan, iragarki tauletan, web-orrian eta bestetan argitaratzea onartzen dutela izangaiek.

10.2. Publikotasun printzipioaren menpe daude hautatze prozesuak; beraz, izangaiek bere datuak baliatzea onatzen eman ezean, ez da haren eskabidea onartuko. Norberaren datuak ikusi, zuzendu, ezeztatuz nahiz kontra agertzeko eskubideak baliatzeko, deialdia egin duen organoarengana jo beharko da.

10.3. Behin-behineko onarpenetik oposizio-faseko azken emaitzak argitaratu arte, izangaiek nortasun-agiriaren zerbakiaren bitartez bakarrik identifikatuko dira argitalpen ofizialetan.

Hamaikagarrena. Izendatze proposamena

11.1. Izendatze proposamena Segurtasun, Higiene eta Ergonomia Zerbitzuak “gainditua” kalifikazioa ematearen mende egongo da; Euskal Herriko Poliziaren hautespen eta prestakuntza araudia onartu zeneko Dekretua bigarren aldiz aldatzeko otsailaren 17ko 36/2004 Dekretuaren eranskinean (2004ko martxoaren 2ko EHAA, 42. zenbakia) aurreikusitako bazterte medikurako taularen arabera izango da hori.

11.2. Oposizio-lehiaketako fase guztiak bukatzean, kalifikaziorik hoberenak lortu dituzten izangaiek izendatzeko proposamena biltzen duen akta igorriko dio epaimahaiak Giza Baliabideen zinegotziari. Izendatzeko proposatzen diren izangaien kopuruak bat etorri beharko du bete beharreko lanpostuen kopuruarekin (Giza Baliabideen Sailak txostena egin beharko du alde aurretik).

Berdinketarik gertatuz gero, Gizon eta Emakumeen Berdintasunerako 4/2005 Legean jasota dagoen irizpidea baliatuko da. Berdinketak jarraitzen badu, oposizio-fasean punturik gehien lortu duen izangaia proposatuko da; hor ere berdinketak berean segitzen badu, bigarren eta lehen ariketetan lorturiko puntuazioa hartuko da kontuan, hurrenkera horretan. Hala ere berdinketak bere horretan jarraitzen badu, izangaia zaharrena proposatuko da.

11.3. Lanpostuak ezingo dituzte bete, inolaz ere, betekizunak betetzen dituztela egiaztatu ez duten izangaiek.

11.4. Puntuazioak direla eta aurkeztutako erreklamazioak aztertu ondoren, Giza Baliabideen txostenak aintzat harturik —titulazio betekizunak betetzen diren eta hizkuntza eskakizunak egiaztatu diren adieraziko da bertan, eskaintako lanpostuak zehaztuko, eta Udaleko Zerbitzu Medikuek emandako gaitasun-kalifikazioak jasoko (2.5. oinarria)—, eta orobat aintzat harturik aldiako bakoitzean —

oposizio-fasean, lehiaketan eta, izanez gero, prestakuntza aldiaren— lortutako emaitzak, izendapen proposamenak egin eta argitara emango ditu epaimahaiak —hasiera batean, praktikaldirako—, eskaintako lanpostuen kopurua gainditu gabe.

11.5. Nolanahi ere, deialdi honen bidez egiten den eskaintzan jasotako lanpostuen kopurua handitu egin ahal izango da —lege mugak aintzat harturik— hautatze prozesuak dirauen bitartean beste lanposturik hutsik geratuz gero, barne sustapena, erretiroa, heriotza nahiz lanpostua gordetzeko eskubiderik gabeko lan-utzialdia dela medio, edo lanpostu berriak sortzen badira lanpostuen zerrendan, deialdikoaren berdinak diren lanpostuak finkatzearen ondorioz. Epaimahaiaren eskariz Giza Baliabideen Sailak lanpostu hutsei buruzko txostena egiten duen eguna izango da lanpostuen kopurua handitzeko epemuga.

11.6. Aurreko puntuan adierazitako ondorioetarako, azken eskaintzan sartu daitezkeen lanpostu hutsen berri emango dio Giza Baliabideen Sailak epaimahaiari.

11.7. Hizkuntza eskakizuna betetzea ezinbesteko duten eta ez duten lanpostuak badaude, baldintza hori betetzen dutenen artean aukeratuak dituen lehenik epaimahaiak izendatu beharrekoak, puntuazio hurrenkeraren arabera. Ondoren, berriz, derrigortasun-datarik ez duten lanpostuetarako izendatu beharrekoak aukeratuak dituen modu berean.

Hamabigarrena. Dokumentazioa aurkeztea

12.1. Merezimenduak balioesterakoan dossier pertsonalean jasota dagoen dokumentazioa baino ez da kontuan hartuko. Epaimahaiak gehieneko epea ezarriko du —hori ezingo da 10 egun baliodunetik beharkoa izan— merezimenduen fasean balioets daitezkeen agiriak dossier pertsonalari eransteko. Agiriaren garrantziak hala eskatzen badu, edo kopiaren kalitatea dela eta zalantzarik sortzen bada, interesdunak aurkeztutako kopiak erkatzeko eskatu ahaliko du epaimahaiak, arrazoituz, eta horretarako, jatorrizko agiria edo informazioa erakusteko eskatu. Interesdunen erantzukizuna izango da aurkezten dituzten agirien benetakotasuna.

12.2. Oposizio-lehiaketa gainditu eta epaimahaiak praktika aldiko funtzionario izendatzeko proposatzen dituen pertsonen bost egun balioduneko epearen barruan aurkeztu behar dituzte oinarri hauetan adierazitako betekizun eta baldintzak betetzen dituztela egiaztatzen duten agiriak —aldez aurretik dossierrean egon ezean—, behin betiko kalifikazioak argitaratzen diren egunaren biharamunetik kontatuta. Zehazki, hauek dira:

- 1. Eskatutako titulu akademikoaren edo hori eskuratzeko eskubideak ordaindu izanaren egiaztagiraren jatorrizkoa, fotokopiarekin erkatzeko.
- 2. Dena delakoa funtzio publikotik apartatua edo zeregin publikoetan jarduteko gaitasuna galdua ez dagoelako zinpeko aitortpena.
- 3. Dolozko delitua egiteagatik zigorrak jaso ez izanaren egiaztageria, birgaitzeko eskubidea aplikagarri izango bada ere.
- 4. Dena delako hizkuntz eskakizunaren egiaztageria, derrigortasun data igarota duten lanpostuetarako lehiaketotan, eta Euskara Tituluen eta Ziertagiriaren Erregistro Bateratuarekin erkatzerik izan ez bada.
- 5. Tasa ordaintzetik salbuesteko edo tasa murriztua ordaintzeko eskatu badu, hori egiaztatzen duen agiria.

Baldin eta adierazitako epean proposatutako izangaiak agiriak aurkezten ez baditu edo eskatzen diren baldintzak betetzen dituela egiaztatzen ez bada —Zuzenbide Zibilaren doktrinan eta jurisprudentzian definitutako zorizko edo ezinbesteko kasuak salbu—, ezin izango da izendatu, eta bertan behera geratuko dira haren jarduerak oro; horrek ez du galaraziko, gainera, eskabidean datu faltsuak eman izanagatik erantzukizunak eskatzea. Behin betiko sailkapenaren hurrenkerari jarraiki ordeztuko dira halakoak.

Hamahirugarrena. Prestakuntza eta praktikarako aldiari aplikatu beharreko erregimen juridikoa

13.1. 9.1 puntuan adierazitako salbuespena kenduta, proposatutako izangaiek hautatze-prozesuko beste fase bat ere gainditu beharko dute: alde batetik, prestakuntza aldi bat egin beharko dute; bestetik, praktikaldia. Hori programatu, antolatu eta zertzea Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiari dagokio; dena den, hark toki-erakundearen prestakuntza-zentroen esku utz ditzake antolaketa eta gauzatzea, eskatuz gero.

13.2. Agiriak aurkezteko epea bukatzen denean, hautatuak izateko proposatutakoen zerrenda argitaratuko da ALHAOn, eta horiek praktikaldiko funtzionario izendatuko. Horrenbestez, prestakuntza- ikastaroa eta praktikaldia egin beharko dituzte, harik eta karrerako funtzionario izendatu edo hautatze prozesutik kanpo utzi arte.

13.3. Praktikaldiko funtzionario diren bitartean, sailkapen-talde berriari dagozkion soldataren eta aparteko ordainsarien pareko ordaina jasoko dute. Ordain hori handitu egingo da baldin eta praktikaldia lanpostu batean jardunez egiten bada, hari dagozkion osagarritzko ordainketak ere ordainduz.

13.4. Prestakuntza ikastaroak eta praktikaldiak ezingo dira batera egin, eta horien iraupena, guztira, ezingo da izan 30 hilabetetik gorakoa, lanpostu bakoitzerako oinarrietan xedatzen denaren ildotik.

13.5. Prestakuntza ikastaroen eta praktikaldien, zeinek bere aldetik, baztertze indarra izango dute. Gaintzen ez badira, izangaia hautatze prozesutik kanpo geratuko da besterik gabe, eta dena delako eskala edo kategorian sartzeko eskubideak oro galdu egingo dira.

Hala ere, munta handiko arrazoiren bat dela-eta izangairen bat ez bada ikastarora edo praktika-aldira agertzen, edo ez baditu burutzen, hurrena berriro egiten direnean egin ahal izango ditu, zegokionean egitea galarazi zioten arrazoiak desagertu direlarik. Ikastaroa eta praktikaldia antolatu eta bideratzearen ardura duen organoaren esku egongo da dena delako arrazoi aintzat hartzekoa den ala ez erabakitzea.

Jaiotzagatiko baimena: seme edo alabaren baten jaiotza dela eta ezinezkoa bada lanpostuaz praktikaldian jabetzea, jaiotza eta edoskitze baimenaz gozatzeko atzeratu ahalko da hasteko unea, gainerako udal langileentzat erditu ondoren araututa dagoen aldirako. Erditzea praktikaldian gertatzen bada, gainerako langileen baldintzetan gozatu ahalko da baimenaz. Edonola ere, ondorio ekonomiko eta administratiiboak promozio gainerako kideen datetara atzeratuko dira.

13.6. Prestakuntza ikastaroko eta praktikaldiko emaitzak ikusirik, prozesua gainditu duten pertsonak karrerako funtzionario izendatzeko proposamena egingo du Akademiak.

13.7. Praktikaldia gainditzen ez dutenek izendatuak izateko eskubideak oro galduko dituzte, alkatearen ebazpen arrazoitu dela medio, eta hautaketa-prozesuan lortutako puntuazioaren arabera dagoen pertsona izendatuko da praktikaldian.

13.8. Prestakuntza aldia hasten den unean bihurtuko dira praktikaldiko funtzionario.

Hamalauugarrena. Izendapena eta lanpostuaz jabetzea

14.1. Praktikaldia bukatu ondoko bi hilabeteko epean karrerako funtzionario izendatuko dira hura gainditu duten izangaiek, Giza Baliabideen zinegotziaren ebazpen baten bitartez (ALHAOn emango da argitara).

14.2. Giza Baliabideen zinegotzi ordezkariak izendapena egin ondoren, 10 egun balioduneko epean jabetu beharko du lanpostuaz izendatutako pertsonak, jakinarazpenaren berri ematen zaion egunaren biharamunetik kontatuta. Lanpostuaz jabetu aurretik, bateraezintasunik ez duela aitortu beharko du

izendatutakoak. Adierazitako epean lanpostuaz ez jabetzeak, zorizko edo ezinbesteko kasuetan salbu, lanpostuari uko egin zaiola esan nahiko du.

14.3. Zerbitzuarengatiko kalte-ordainei dagokienez Gasteizko udalerria joko da beti bizilekutzat.

Hamabosgarrena. Kontra egitea.

15.1. Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean eta Administrazioarekiko Auzietarako Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean adierazitako moduan eta kasuetan jo ahal izango dute interesatuek oinarri hauen kontra, baita deialdiaren beraren nahiz oinarrietatik eta epaimahaiaren jardueratik eratorritako administrazio egintzen kontra ere.

Eranskinak, informazio osagarria eta deialdiaren jarraipena: <http://www.vitoria-gasteiz.org/hautatzeprozesuak>.

ERANSKINA – GAIAK: LEHEN AGENTEA.

I. ZIGOR-ZUZENBIDEA

- 1) Zigor Kodea. I. liburua.
 - Arau-hauste penala. Delituak eta erantzukizun kriminaletik salbuesten duten arrazoiak, eta hori arintzen eta/edo astuntzen duten inguruabarrak.
 - Delituei dagokien erantzukizun kriminala duten pertsonak.
- 2) Zigor Kodea. II. liburua. Delituak eta horiei dagozkien zigorrak.
 - Lesioak.
 - Askatasunaren aurkako delituak: legearen aurkako atxiloketak eta bahiketak, mehatxuak, derrigortzeak.
 - Torturak eta osotasun moralaren aurkako beste delituak.
 - Sexu-askatasun eta -ukigabetasunaren aurkako delituak.
 - Sorospen eginbeharra ez betetzea.
 - Bizitza pribatuaren, norberaren irudirako eskubidearen eta egoitzaren bortxaezintasunaren aurkako delituak.
 - Ohorearen aurkako delituak.
 - Ondarearen eta gizarte eta ekonomiaren ordenaren aurkako delituak (hauek salbu: administrazio desleiala, zigortzekoak diren kaudimengabeziak, jendaurreko lehiaketa eta enkanteetan prezio publikoak aldatzea, merkatuari eta kontsumitzaileei buruzko delituak, negozioetako ustelkeria, norberaren gauza gizarte- eta kultura-onuratik itzuraztea, delitu sozietarioak, kapitalak errebitzea eta zuritzea).
 - Langileen eskubideen aurkako delituak.
 - Atzerriko herritarren eskubideen aurkako delituak.
 - Segurtasun kolektiboaren aurkako delituak (hauek salbu: energia nuklearrari eta erradiazio ionizatzaileei buruzko delituak).
 - Faltsutzeak.
 - Herri Administrazioaren aurkako delituak.
 - Justizi Administrazioaren aurkako delituak (hauek salbu: Justizi Administrazioaren aurkako delituak, Nazioarteko Zigor Gorteari dagokionez).
 - Konstituzioaren aurkako delituak: oinarritzko eskubideen eta askatasun publikoen egikaritzari buruzkoak, eta funtzionario publikoek konstituzio-bermeen aurka egindakoak.
 - Ordena publikoaren aurkako delituak (hauek salbu: albaramendua, antolakunde eta talde terroristak eta terrorismo-delituak).
- 3) 1/2004 Lege Organikoa, genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriak buruzkoa.
- 4) 5/2000 Lege Organikoa, adingabeen erantzukizun penala arautzen duena.
 - *Adierazpen orokorra. Legearen aplikazio-esparrua. Neurriak. Prozeduraren instrukzioa: adingabeak atxilotzea, espediente hastera, espedientearen inguruko isilgordea, talde teknikoaren txostena. Neurriak betearaztea: xedapen orokorrak. Birgizarteratze-printzipioa.*

II. PROZESU PENALA.

- 5) Prozedura Kriminalaren Legea. II. liburua. Sumarioa.
 - Salaketa eta kereila.
 - Polizia judiziala.
 - Instrukzioa.
 - Delitua egiaztatzea eta delitugilea nor den ikertzea.
 - Zitazioa eta atxiloketa.

- Defentsa-eskubidearen egikaritzea, abokatuaren laguntza eta atxilotuei eman beharreko tratua.

III. TRAFIKOA ETA BIDE SEGURTASUNA

- 6) 6/2015 Legegintzako Errege Dekretua, Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko testuategina.
- 7) 1428/2003 Errege Dekretua, Zirkulazio Araudi Orokorra.
- 8) 320/1994 Errege Dekretua, trafikoari, ibilgailu motordunen zirkulazioari eta bide segurtasunari buruzko gaitako Zigor Prozeduraren Araudia.
 - Aplikazio-eremua. Eskumenak.
 - II. titulua: Zirkulazioko jokabide-arauak.
Bereziki gai hauekin lotutako artikulua: *zirkulazio-arau orokorrak; edari alkoholdunak eta drogak; erreien erabilera; pasatzeko lehentasuna; larrialdietako ibilgailuak; gelditzea eta aparkatzea; argien erabilera; uhala, kaskoa eta gainerako segurtasun-elementuak; oinezkoak.*
 - III. titulua: Seinalazioa. *Arau orokorrak; lehentasuna; seinaleak kentzea, ordezkatzeta eta aldatzea.*
 - IV. titulua: Administrazio-baimenak. *Gidabaimenak eta gidalizentziak; puntuak esleitzea, galtzea eta berreskuratzea; zirkulazio-baimenak; bestelako dokumentazioa; matrikula-plakak; baimenaren deuseztasuna, kaltegarritasuna eta indar-galtzea.*
 - V. titulua: Zehapen-araubidea. *Arau-hausteak; zehapenak; erantzukizuna; zehapen-prozedura; behin-behineko neurriak eta beste neurri batzuk; preskripzioa eta iraungitzea.*
 - 6/2015 LEDaren I., II. eta IV. eranskinak: *Oinarrizko kontzeptuak; puntuak galtzea dakarten arau-hausteak; gehiegizko abiadurak eragindako zehapenen eta puntu-galeren taula.*
 - 1428/2003 LEDaren II. eranskina: *Kirol-probak, bizikleta-ibilaldiak eta bestelako gertakariak.*

IV. POLIZIA ADMINISTRATIBOA. Udal ordenantzak eta jolas jarduerak eta jendaurreko ikuskizunak.

- 9) Izaera urbanoko bide publikoetako erabilera, trafikoa, zirkulazioa eta segurtasuna arautzen dituen udal ordenantza.
- 10) Bide publikoan egiten diren obra eta lanetarako seinaleak eta balizak arautzeko udal ordenantza.
- 11) Lurrazaleko aparkaldi mugatuko zerbitzua (TAO) arautzen duen ordenantza.
- 12) Animaliak eduki eta babesteari buruzko udal ordenantza.
- 13) Gasteizko ostalaritza-establezimendu publikoetako eta horiekin parekatuetako terrazak arautzeko udal ordenantza.
- 14) Euskal Autonomia Erkidegoko jendaurreko ikuskizun eta jolas-jarduerari buruzko Legea eta Araudia (10/2015 Legea eta 17/2019 Dekretua).

V. JARDUTEKO ETA HERRITARREI ARRETA EMATEKO ARAUDI OSAGARRIAK

- 15) 4/2015 Lege Organikoa, Herritarren Segurtasuna Babesteari buruzkoa.
- 16) 4/2000 Lege Organikoa, atzerritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunei buruzkoa eta atzerritar horiek gizarteratzeari buruzkoa.
 - *Atariko titulua: Xedapen orokorrak.*
 - *I. titulua.- Atzerritarren eskubideak eta askatasunak.*

- *II. titulua.- Atzerritarren araubidea (Espainiako lurraldean sartzeko betekizunak, bisatu-motak, bisatua ematea, egonaldi- eta bizileku-baimena, irabazteko asmoa duten jarduerak gauzatzeko baimenak).*
 - *III. titulua.- Arau-haustek eta horien araubide zehatzailea.*
- 17) 137/1993 Errege Dekretua, Armen Araudia.
- *Xedapen orokorrak.*
 - *Zirkulazio-gidak.*
 - *Armen titulartasunari buruzko dokumentazioa.*
 - *Lizentziak, baimen bereziak eta arma-txartelak.*
 - *Zehatzeko erregimena.*
 - *Gordailutako eta konfiskatutako armak.*
- 18) 1/2016 Legea, Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzkoa.
- *Xedapen orokorrak.*
 - *Adikzioen prebentzioa.*
 - *Eskaintzaren murrizketa. Polizia-jardueraren irizpideak. Edari alkoholdunen, tabakoaren eta nikotina aska dezaketen gailuen publizitatea, sustapena, banatzea, salmenta eta kontsumoa mugatzeko neurriak. Bestelako substantzien mugak. Jokabide-adikzioak eragin ditzaketen portaerekin erlazionatutako zerbitzuen eta establezimenduen inguruko mugak.*
 - *Arau-haustek eta zigorrak.*
- 19) 3/2007 Lege Organikoa, Emakumeen eta Gizonen Benetako Berdintasunari buruzkoa.
- *Atariko titulua.- Legearen xedea eta esparrua.*
 - *I. titulua.- Berdintasun-printzipioa eta bereizkeriaren aurkako babesa.*
 - *II. titulua. I. kapitulua.- Berdintasunerako politika publikoak. Printzipio orokorrak.*
- 20) Euskal Funtzio Publikoaren 6/1989 Legea: *Hizkuntza-normalizazioa.*
- 21) 4/2015 Legea, Biktimaren Estatutuaren Legea: *oinarrizko eskubideak eta biktimak babestea.*
- 22) Etika poliziaren inguruko arauak. Kode deontologikoak.
- *169/34 Ebazpena, 1979koa, Nazio Batuen Erakundeko Batzar Nagusiarena. Legea betearazteko ardura duten funtzionarioentzako jokabide-kodeak. 1979ko abenduaren 17a.*
 - *Ministroen Batzordearen Rec. (2001) 10 Gomendioa estatu kideentzat, Etika Polizialeko Kode Europarrari buruzkoa.*
 - *2/1986 Lege Organikoa, Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoei buruzkoa. Oinarrizko jarduera-printzipioak.*
 - *1/2020 Legegintzako Dekretua, Euskal Herriko Poliziari buruzko Legearen testu bategina. Kode deontologikoa.*
- 23) Udaltzaingoaren uniformetasunari buruzko jarraibidea: *agurra eta herritarrekiko tratua.*

VI. PERTSONEN KUDEAKETA

- 24) Motibazioa eta ikuskatzea (erreferentziazko dokumentazioa emango da).

ERANSKINA – GAIAK: OFIZIALA ETA OFIZIALORDEA

I. ZIGOR-ZUZENBIDEA

- 1) Zigor Kodea. I. liburua.
 - Arau-hauste penala. Delituak eta erantzukizun kriminaletik salbuesten duten arrazoiak, eta hori arintzen eta/edo astuntzen duten inguruabarrak.
 - Delituei dagokienez erantzukizun kriminala duten pertsonak.
- 2) Zigor Kodea. II. liburua. Delituak eta horiei dagozkien zigorrak.
 - Lesioak.
 - Askatasunaren aurkako delituak: legearen aurkako atxiloketak eta bahiketak, mehatxuak, derrigortzeak.
 - Torturak eta osotasun moralaren aurkako beste delituak.
 - Sexu-askatasun eta -ukigabetasunaren aurkako delituak.
 - Sorospen eginbeharra ez betetzea.
 - Bizitza pribatuaren, norberaren irudirako eskubidearen eta egoitzaren bortxaezintasunaren aurkako delituak.
 - Ohorearen kontrako delituak.
 - Ondarearen eta gizarte eta ekonomiaren ordenaren aurkako delituak (hauek salbu: administrazio desleiala, zigortzekoak diren kaudimengabeziak, jendaurreko lehiaketa eta enkanteetan prezio publikoak aldatzea, merkatuari eta kontsumitzaileei buruzko delituak, negozioetako ustelkeria, norberaren gauza gizarte- eta kultura-onuratik itzuraraztea, delitu sozietarioak, kapitalak errezipitza eta zuritzea).
 - Langileen eskubideen aurkako delituak.
 - Atzerriko herritarren eskubideen aurkako delituak.
 - Segurtasun kolektiboaren aurkako delituak (hauek salbu: energia nuklearrari eta erradiazio ionizatzaileei buruzko delituak).
 - Faltsutzeak.
 - Herri Administrazioaren aurkako delituak.
 - Justizi Administrazioaren aurkako delituak (hauek salbu: Justizi Administrazioaren aurkako delituak, Nazioarteko Zigor Gorteari dagokionez).
 - Konstituzioaren aurkako delituak: oinarrizko eskubideen eta askatasun publikoen egikaritzari buruzkoak, eta funtzionario publikoek konstituzio-bermeen aurka egindakoak.
 - Ordena publikoaren aurkako delituak (hauek salbu: albaramendua, antolakunde eta talde terroristak eta terrorismo-delituak).
- 3) 1/2004 Lege Organikoa, genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzkoa.
- 4) 5/2000 Lege Organikoa, adingabeen erantzukizun penala arautzen duena.
 - *Aitorpen orokorra. Legearen aplikazio-esparrua. Neurriak. Prozeduraren instrukzioa: adingabeak atxilotzea, espedienteak hastea, espedientearen inguruko isil-gordea, talde teknikoaren txostena. Neurriak betearaztea: Xedapen orokorrak. Birgizarteratze-printzipioa.*

II. PROZESU PENALA.

- 5) Prozedura Kriminalaren Legea. II. liburua. Sumarioa.
 - Salaketa eta kereila.
 - Polizia judiziala.
 - Instrukzioa.
 - Delitua egiaztatzea eta delitugilea nor den ikertzea.
 - Zitatzea eta atxiloketa.
 - Defentsa-eskubidearen egikaritzea, abokatuaren laguntza eta atxilotuei eman beharreko tratua.
 - Konstituzioan aitortutako eskubideak mugatzen dituzten ikerketa-neurriak.
 - *Itxita dagoen lekura sartu eta hori miatzea. Egoitzaren bortxaezintasun eskubidea aintzatetsi eta babestea. Titularraren baiespena. Egoitza partikularrera sartu eta*

miatzea, sartzeko agindua eta miaketa, egoitza miatzea. Agintaria bera sartu, eta miatzea.

- *Liburuak eta paperak miatzea.*
- *Idatzizko posta eta posta telegrafikoa geldiarazi eta irekitzea.*
- *Alderdi hauei buruzko xedapen orokorrak: telefonoz edo bide telematikoz egindako komunikazioak atzematea; ahozko komunikazioak gailu elektronikoak baliatuz aditu eta grabatzea; jarraitzeko, bilatzeko eta irudiak hartzeko gailu teknikoak erabiltzea; informazio-multzo handiak gordetzeko gailuak miatzea, eta ekipo informatikoen urruneko miaketak. Telefonoz edo bide telematikoz egindako komunikazioak atzematea.*
- *Ahozko komunikazioak gailu elektronikoak baliatuz aditu eta grabatzea.*
- *Jarraitzeko, bilatzeko eta irudiak hartzeko gailu teknikoak erabiltzea.*
- *Informazio-multzo handiak gordetzeko gailuak miatzea.*
- *Ekipo informatikoen urruneko miaketak.*

- 6) Prozedura Kriminalaren Legea. IV. liburua. Prozedura bereziak.
- *Delitu batzuk azkar epaitzeko prozedura. Aplikazio-eremua, Polizia judizialaren jarduera.*

III. TRAFIKOA ETA BIDE SEGURTASUNA

- 7) 6/2015 Legegintzako Errege Dekretua, Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko testu bategina.
- 8) 1428/2003 Errege Dekretua, Zirkulazio Araudi Orokorra.
- 9) 320/1994 Errege Dekretua, trafikoari, ibilgailu motordunen zirkulazioari eta bide segurtasunari buruzko gaietako Zigor Prozeduraren Araudia.

- *Aplikazio-eremua. Eskumenak.*
- *II. titulua.- Zirkulazioko jokabide-arauak.*
Bereziki gai hauekin lotutako artikulua: zirkulazio-arau orokorrak; edari alkoholodunak eta drogak; erreien erabilera; pasatzeko lehentasuna; larrialdietako ibilgailuak; gelditzea eta aparkatzea; argien erabilera; uhala, kaskoa eta gainerako segurtasun-elementuak; oinezkoak.
- *III. titulua.- Seinalizazioa. Arau orokorrak; lehentasuna; seinaleak kentzea, ordezkatzea eta aldatzea.*
- *IV. titulua: Administrazio-baimenak. Gidabaimenak eta gidalizentziak; puntuak esleitzea, galtzea eta berreskuratzea; zirkulazio-baimenak; bestelako dokumentazioa; matrikula-plakak; baimenaren deuseztasuna, kaltegarritasuna eta indar-galtzea.*
- *V. titulua.- Zehapen-araubidea. Arau-hausteak; zehapenak; erantzukizuna; zehapen-prozedura; behin-behineko neurriak eta beste neurri batzuk; preskripzioa eta iraungitzea.*
- *6/2015 LEDaren I., II. eta IV. eranskinak: oinarritzko kontzeptuak; puntuak galtzea dakarten arau-hausteak; gehiegizko abiadurak eragindako zehapenen eta puntu-galeren taula.*
- *1428/2003 LEDaren II. eranskina: kirol-probak, bizikleta-ibilaldiak eta bestelako gertakariak.*

IV. BABES ZIBILA

- 10) 17/2015 Legea, Babes Zibilerako Sistema Nazionalarena.
- 11) 1/2017 Legegintzako Dekretua, Euskadiko Larrialdien Kudeaketari buruzko Legearen testu bategina.
- 12) Babes Zibileko Euskadiko Plana (LABI).
- 13) Gasteizko Udalaren Larrialdi Plana. Elurteak. Uholdeak. Haizete gogorrak. Gasteizko jaiak.
- 14) Larrialdi egoeretako jarduera: zuzendaritza, antolaketa eta koordinazioa. Agintea eta kontrola.

V. POLIZIA ADMINISTRATIBOA. Udal ordenantzak eta jolas jarduerak eta jendaurreko ikuskizunak.

- 15) Izaera urbanoko bide publikoetako erabilera, trafikoa, zirkulazioa eta segurtasuna arautzen dituen udal ordenantza.
- 16) Bide publikoan egiten diren obra eta lanetarako seinaleak eta balizak arautzeko udal ordenantza.
- 17) Animaliak eduki eta babesteari buruzko udal ordenantza.
- 18) Gasteizko ostalaritza-establezimendu publikoetako eta horiekin parekatuetako terrazak arautzeko udal ordenantza.
- 19) Gasteizko garbiketari eta hondakinen bilketa eta garraioari buruzko udal ordenantza. *Poliziaren esku-hartzerako interesa duten ezagutzak.*
- 20) Zarata eta Bibrazioen kontrako Udal Ordenantza. *Poliziaren esku-hartzerako interesa duten ezagutzak.*
- 21) Euskal Autonomia Erkidegoko jendaurreko ikuskizun eta jolas-jardueri buruzko Legea eta Araudia (10/2015 Legea eta 17/2019 Dekretua).

VI. JARDUTEKO ETA HERRITARREI ARRETA EMATEKO ARAUDI OSAGARRIAK

- 22) 4/2015 Lege Organikoa, Herritarren Segurtasuna Babesteari buruzkoa.
- 23) 4/2000 Lege Organikoa, atzerritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunei buruzkoa eta atzerritar horiek gizarteratzeari buruzkoa.
 - *Atariko titulua.- Xedapen orokorrak.*
 - *I. titulua.- Atzerritarren eskubideak eta askatasunak.*
 - *II. titulua.- Atzerritarren araubidea (Espainiako lurraldean sartzeko betekizunak, bisatumotak, bisatua ematea, egonaldi- eta bizileku-baimena, irabazteko asmoa duten jarduerak gauzatzeko baimenak).*
 - *III. titulua.- Arau-hausteak eta horien araubide zehatzailea.*
- 24) 137/1993 Errege Dekretua, Armen Araudia.
 - *Xedapen orokorrak.*
 - *Zirkulazio-gidak.*
 - *Armen titulartasunari buruzko dokumentazioa.*
 - *Lizentziak, baimen bereziak eta arma-txartelak.*
 - *Zehatzeko erregimena.*
 - *Gordailutako eta konfiskatutako armak.*
- 25) 1/2016 Legea, Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzkoa.
 - *Xedapen orokorrak.*
 - *Adikzioen prebentzioa.*
 - *Eskaintzaren murrizketa. Polizia-jardueraren irizpideak. Edari alkoholduen, tabakoaren eta nikotina aska dezaketen gailuen publizitatea, sustapena, banatzea, salmenta eta kontsumoa mugatzeko neurriak. Bestelako substantzien mugak. Jokabide-adikzioak eragin ditzaketen portaerekin erlazionatutako zerbitzuen eta establezimenduen inguruko mugak.*
 - *Arau-hausteak eta zigorrak.*
- 26) 3/2007 Lege Organikoa, Emakumeen eta Gizonen Benetako Berdintasunari buruzkoa.
 - *Atariko titulua.- Legearen xedea eta esparrua.*
 - *I. titulua.- Berdintasun-printzipioa eta bereizkeriaren aurkako babesa.*
 - *II. titulua. I. kapitulua.- Berdintasunerako politika publikoak. Printzipio orokorrak.*
- 27) Euskal Funtzio Publikoaren 6/1989 Legea: *Hizkuntza-normalizazioa.*
- 28) 4/2015 Legea, Biktimaren Estatutuaren Legea: *oinarrizko eskubideak eta biktimak babestea.*
- 29) Etika poliziaren inguruko arauak. Kode deontologikoak.
 - *169/34 Ebazpena, 1979koa, Nazio Batuen Erakundeko Batzar Nagusiarena. Legea betearazteko ardua duten funtzionarioentzako jokabide-kodeak. 1979ko abenduaren 17a.*
 - *Ministroen Batzordearen Rec. (2001) 10 Gomendioa estatu kideentzat, Etika Polizialeko Kode Europarrari buruzkoa.*
 - *2/1986 Lege Organikoa, Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoei buruzkoa. Oinarrizko jarduera-printzipioak.*
 - *1/2020 Legegintzako Dekretua, Euskal Herriko Poliziari buruzko Legearen testu bategina. Kode deontologikoa.*
- 30) Udaltzaingoaren uniformetasunari buruzko jarraibidea: *agurra eta herritarrekiko tratua.*

VII. POLIZIA JARDUERAK, TEKNIKAK, TAKTIKAK ETA PROZEDURAK

- 31) Polizi patruila. Kontzeptua eta izaera. Jarraibideak eta helburuak.
- 32) Drogak: kontzeptua, sailkapena, droga motak. Kontsumo motak eta eraginak.
- 33) Bide publikoetako kontrolak.
- 34) Armak eta objektu arriskutsuak.
- 35) Desagertutako pertsonak.
- 36) Biktima eta lekukoei arreta ematea.
- 37) Gazteekiko jarduerak: lonjak, kaleko edana.
- 38) Artikulu piroteknikoak.
- 39) Trafikoa arautzeko antolaketa bereziak (kirol ekitaldi eta probak, manifestazioak...)
- 40) Txostenak egitea.

VIII. UDALTZAINGOA

- 41) Udaltzaingoa Segurtasun Indar eta Kidegoen 2/1986 Lege Organikoan eta Euskal Herriko Poliziaren Legearen testu bateginean (1/2020 Legegintzako Dekretua).
- 42) 15/2012 Legea, Euskadiko Segurtasun Publikoaren Sistemaren antolaketa.
- 43) Herritarren Segurtasuna. Udalerrien eta udaltzaingoen eskumenak.
- 44) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eta Gasteizko Udalaren arteko lankidetzarako esparru-hitzarmena Ertzaintzaren eta Udaltzaingoen arteko lankidetzarako.
- 45) Ertzaintzaren eta Udaltzaingoen artean eskumenak koordinatzeko protokoloa.
- 46) Euskal Herriko Poliziaren diziplina araudia.
- 47) Gasteizko Udalean lan baldintzak arautzen dituen hitzarmena. Lan-baldintzei buruzko ebazpenak, Udaltzaingoiari aplikatzekoak.

IX. PERTSONEN KUDEAKETA

- 48) Komunikazioa. Feed-backa.
- 49) Adimen emozionala.
- 50) Lidergoia eta motibazioa.
- 51) Ikuskapena eta ebaluazioa.
- 52) Bilera eraginkorrak.
- 53) Hobekuntza ekipoak.
- 54) Plangintza operatiboa.

(Erreferentziarako dokumentazioa emango da).